



1HI-039/13-P03 URKABUSTAIZ

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

CERTIFICO: Que, en la Sesión 4/2013 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada en Vitoria-Gasteiz, el día 9 de octubre se adoptó, por unanimidad de los asistentes que formaban la mayoría absoluta de los miembros el siguiente acuerdo:

I.- En materia de Ordenación del Territorio:

I- Valorar el Modelo Territorial planteado por el expediente de "Plan General de Ordenación Urbana del Municipio" del municipio de Urkabustaiz de conformidad con lo establecido en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco, y en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos, cuyo carácter de informe es vinculante:

1.- MEDIO FISICO

1a.- Adecuación a las Directrices de Ordenación Territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

- Se informa favorablemente la zonificación de S.N.U. propuesta, por adecuarse a las denominaciones y criterios de las Categorías de Ordenación del capítulo 8 de las Directrices de Ordenación Territorial, y resultar coherente con las determinaciones del P.T.P. de Álava Central.

- No obstante lo anterior, la Normativa del documento deberá indicar la necesidad del cumplimiento del artículo 31 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a fin de garantizar el cumplimiento de las condiciones para el otorgamiento de

1HI-039/13-P03 URKABUSTAIZ

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK,

ONDOKOA ZIURTATZEN DU: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak urriaren 9an Vitoria-Gasteizen egindako 4/2013 bilkuran batzordekideen gehiengo osoa osatu zuten bertaratutakoek eta jarraian azaltzen den akordioa aho batez onartu zuten:

I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

I. Urkabustaizko udalerriko "Hiri-antolamendurako Plan Nagusia" espedientea balioestea, xedapen hauetan ezarritakoaren arabera: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea; Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea; eta Autonomi Elkarte Osorako Erakundeen eta Bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzeko uztailaren 16ko 5/1993 Legea. Txostena loteslea da, hona hemen baliospena:

1.- INGURUNE FISIKOA

1a.- EAEko Lurraldearen Antolamenduari buruzko Jarraibideetara egokitzea.

- Aldeko irizpena eman zaio lurzoru urbanizaezinerako proposatutako antolamendu-kategoriei, Lurraldearen Antolamenduari Buruzko Jarraibideetan ezarritako izen eta irizpideekin bat baitatoz, baita Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planarekin ere.

- Aurrekoa gorabehera, dokumentuaren araudiak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 31. artikulua bete beharra aipatu beharko du, baratzezaintzako edo abeltzaintzako ustiaketa ekonomiko bati lotutako oin berriko etxebizitza eraikitzeko jardueren



licencias y documentación de actos de construcción y edificación de nueva planta de vivienda vinculada a una explotación económica hortícola o ganadera.

- En el caso de la sustitución, la Normativa deberá señalar específicamente que ésta debe conllevar la construcción de un edificio de vivienda vinculado a explotación económica hortícola y ganadera en los supuestos del artículo 31 de la Ley 2/2006.

- El expediente tiene que mencionar expresamente la necesidad de cumplimiento del Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas.

1b.- Adecuación al Plan Territorial Parcial de Álava Central.

- Se informa favorablemente el expediente en relación a su adecuación al PTP de Álava Central.

1c.- Adecuación al PTS de Ordenación de Márgenes de Ríos y Arroyos de la CAPV.

- El expediente debe representar correctamente los retiros establecidos por el PTS de Ríos para Suelo No Urbanizable, que serán de 30m en los tramos de niveles I y II y de 15m en tramos de nivel 0.

- La documentación deberá plasmar de manera correcta en su Normativa y en la documentación gráfica todos los retiros respecto a cauces en Suelo Urbano. Concretamente deben cumplirse los retiros mínimos de edificación definidos en el apartado F.3 del P.T.S. que se concretan en un retiro de 10 o 12m, según la línea de deslinde- encauzamiento esté o no definida en nivel I y nivel 0.

- Se deberá plasmar en la documentación el requisito de que los retiros se medirán desde la línea de borde del cauce público, y no desde el eje.

- En lo que respecta a inundabilidad, se da traslado del expediente a URA, para su valoración.

1d.- Adecuación al Plan Territorial

lizentziak eta agiriak emateko baldintzak bermatzeko.

- Ordezkatzekotan, araudiak berariaz aipatu beharko du horrek dakarrela baratz zaintza- edo abeltzaintza-ustiaketa ekonomiko bati lotutako etxebizitza eraiki beharra eta, 2/2006 Legearen 31. artikuluan ezarritako kasuren bat izan beharko da.

- Espediente horrek espresuki aipatu behar du abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretua bete beharko dela.

1b.- Araba Erdialdeko Lurralde Zatiko Planera egokitzea.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari, Araba Erdialdeko Lurraldearen Zatiko Planera egokitzen baita.

1c.- EAeko Erreken eta Ibaien Ertzen Antolamendurako Lurraldearen Arloko Planera egokitzea.

- Espedienteak aipatu behar ditu Ibaien Lurraldearen Arloko Planak Zoru Ez Urbanizagarrian ezartzen dituen distantziak: 30 metro maila 1eko tartetean eta 15 metro 0 mailako tartetean.

- Dokumentazioak Araudian eta mapetan zuzen aipatu behar ditu hiri-lurzoruan dauden ubideei dagozkien distantziak. Hain zuzen ere, LApeko F.3 puntuan zehaztutako gutxieneko eraikuntza-distantziak bete behar dira: 10 edo 12 metroko distantzia, mugabanaketa-lerro edo ubiderapena definituta dagoen ala ez dagoen, maila 1 eta maila 0n.

- Dokumentazioan adierazi beharko da distantzia ez dela ardatzarekiko izango, ubide publikoko mugabanaketa-lerroarekiko baizik.

- Urez bete daitezkeen tarteei dagokienez, espedienteak URA-Uraren Euskal Agentziari bidaliko zaio, horrek bere balioespina egin dezan.

1d.- EAeko Hezeguneen Lurraldearen



Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV.

- Se informa favorablemente el expediente en lo que respecta a su adecuación al PTS de Zonas Húmedas de la CAPV.

2.- INFRAESTRUCTURAS Y SERVICIOS

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo a infraestructuras y redes de servicios.

- No obstante lo anterior, se ha trasladado el expediente a la Viceconsejería de Transportes, para su valoración.

3.- EQUIPAMIENTOS Y ESPACIOS LIBRES

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo a Equipamientos y Espacios Libres.

4.- ASENTAMIENTOS RESIDENCIALES Y DE ACTIVIDADES ECONÓMICAS

4a.- Cuantificación y modelo territorial residencial.

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo al modelo residencial, en tanto que las propuestas en materia residencial se localizan suelos ya calificados, únicamente con leves reajustes de suelo que no suponen un consumo mayor de suelo artificial.

- Se informa favorablemente el expediente, en lo que a Cuantificación Residencial en Izarra se refiere, por cuanto que la capacidad residencial planteada en este núcleo de 312 viviendas encaja en la capacidad residencial resultante de aplicar los criterios del Plan Territorial Parcial de Álava Central y de las DOT.

- Se informa favorablemente el expediente en cuanto a cuantificación residencial se refiere en los núcleos de Abezia, Abornikano, Beluntza, Goiuri, Inoso, Larrazketa, Oiardo, Untzaga/Unzá y Uzkiano.

- Se informa favorablemente el expediente en lo relativo al cumplimiento de edificabilidades, por cuanto que éstas se sitúan entre los valores máximos y

Arloko Planera egokitzea.

- EAeko Hezeguneen Lurraldearen Arloko Planari dagokionez, aldeko irizpena eman zaio espedienteari, plan horretara egokitzen baita.

2.- AZPIEGITURAK ETA ZERBITZUAK

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari azpiegituren eta zerbitzuen arloetan.

- Dena dela, Garraio Sailburuordetzari bidali zaio espedientea, balorazioa egiteko.

3.- EREMU LIBREAK ETA EKIPAMENDUAK

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari ekipamenduen eta espazio libreen arloetan.

4.- BIZITOKITARAKO ETA EKONOMIA-JARDUERETARAKO KOKALEKUAK

4a.- Bizitokien eredua eta kuantifikazioa.

- Bizitegirako ereduari dagokionez, espedienteari aldeko irizpena eman zaio, bizitegirako proposamen berriak jadanik kalifikatuta dauden lurzoruetan kokatzen baitira; zoru artifizial gehiagoren kontsumoa ez dakarten lurzoru egokitze txiki batzuk baino ez dira egin behar.

- Aldeko irizpena eman zaio Izarrako bizitegirako lurzoru kopuruari dagokionez, gune horretan proposatzen diren 312 etxebizitza berriak Araba Erdialdeko LZP eta Lurralde Antolamendurako Jarraibideetan ezarritako irizpideak ezartzean lortzen diren emaitzekin bat baitator.

- Aldeko irizpena eman zaio ondoko gune hauetako bizitegirako lurzoru kopuruari dagokionez; Abezia, Abornikano, Beluntza, Goiuri, Inoso, Larrazketa, Oiardo, Untzaga eta Uzkiano.

- Eraikigarritasun-balioak betetzeari dagokionez, aldeko irizpena eman zaio espedienteari, eraikigarritasun-balioak balio maximoen eta minimoen artean baitaude, Lurzoruari eta Hirigintzari



mínimos, de acuerdo con el artículo 77 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo.

4b.- Ordenación y cuantificación del Suelo de Actividades Económicas

- Se informa favorablemente el expediente en materia de suelo para actividades económicas.

- La ficha del ámbito S-01 debe señalar la limitación del PTS de Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales, de limitar la superficie de explanada y el techo máximo edificado para gran equipamiento comercial.

II- A los efectos de lo dispuesto en el punto 3 de la Disposición Adicional Primera de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo relativa a esta Comisión, una vez introducidas las condiciones contenidas en el presente informe el expediente podrá ser aprobado definitivamente sin necesidad de ser sometido nuevamente a informe de esta Comisión.

II.- En materia de Aguas:

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 4 de octubre de 2013, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a la siguiente determinación de carácter vinculante:

- El PGOU debe incorporar una reserva de suelo suficiente para la ampliación de la actual EDAR, que resulta necesaria ante los crecimientos previstos, y proceder también a la tramitación de las autorizaciones de vertido de todos los núcleos.

III.- En materias de competencia del Estado

Es preciso tener en consideración el informe emitido el 13 de diciembre de 2012 por el Área de Fomento de la Subdelegación del Gobierno en Álava en el que se recogen diversas consideraciones de la Confederación Hidrográfica del Ebro, del Administrador de Infraestructuras Ferroviarias (ADIF) y de la Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

buruzko 2/2006 Legearen 77. artikulua arabera.

4b.- Jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren antolamendua eta kuantifikazioa.

- Aldeko irizpena eman zaio espedienteari jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruaren antolamenduari dagokionez.

- S-01 eremuaren fitxak aipatu beharko du Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzen LAPEk ezarritako honako parametro hauen mugaketa: plataforma zelaituaren gehieneko azalera garbia eta gehieneko eraikitako sabai-azalera.

II- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko 3. Puntua Batzordeari buruzkoa da eta horrek xedatutakoaren arabera, txosten honetan aipatzen diren baldintzak sartu eta gero, espedienteak behin-betiko onespena lortu ahal izango du, Batzorde honen txosten berriaren beharrik gabe.

II.- Uraren arloan:

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2013ko urriaren 4an, aldeko txostena egin zuen, ondoko erabaki lotesle hau betetzeko baldintzapean:

- HAPNk hondakin-uren araztegia handitzeko behar besteko lurzoruaren erreserba jaso behar du, aurreikusitako hazkundeak aztertuta beharrezkoa baita; eta, gune guztien isurketa-baimenak bideratzeari ere ekin behar dio.

III.- Estatuaren eskumenen arloan:

Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztako Sustapen Atalak 2012ko abenduaren 13an egindako txostena kontuan hartu behar da. Horrek ondokoek egindako zenbait irizpen jasotzen ditu: Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, *Administrador de Infraestructuras Ferroviarias* (ADIF) eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa.



IV.- En materia de Agricultura y Ganadería

La Dirección de Agricultura y Ganadería, en su informe emitido el 30 de septiembre de 2013, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a la siguiente determinación de carácter vinculante:

- **Aplicación de normativa relativa a las nuevas explotaciones ganaderas**

Las explotaciones ganaderas de nueva instalación deberán cumplir la normativa vigente, que actualmente es la siguiente:

- *Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas.*
- *Decreto 165/1999, de 9 de marzo, por el que se establece la relación de actividades exentas de la obtención de licencia de actividad prevista en la Ley de Protección del Medio Ambiente, para explotaciones que no requieran licencia de actividad. Modificado por Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, (disposición adicional tercera).*

Aplicación de la normativa relativa a explotaciones ganaderas existentes:

- *Las explotaciones ganaderas existentes que vayan a obtener la licencia de actividad tienen un plazo de 15 años, para adaptarse a las condiciones establecidas en el Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, no siéndoles de aplicación las normas relativas a distancias y ubicación, tal como establece el mencionado Decreto.*

IV.- En materia de Patrimonio Cultural:

En materia de Patrimonio Cultural, se tendrán en consideración las siguientes

IV.- Nekazaritza eta Abeltzaintzaren arloan

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 2013ko irailaren 30ean emandako txostenean aldeko txostena egin zuen, ondoko erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

- **Nekazaritzako ustiategi berriei buruzko araudia ezartzea**

Nekazaritzako ustiategi berriak instalatzekotan, indarreko araudia bete beharko dute, eta gaur egun ondokoa da:

- *515/2009 DEKRETUA, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiategi-tako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.*
- *165/1999 DEKRETUA, martxoaren 9koa, otsailaren 27ko 3/1998 Legean, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duena. Hori irailaren 22ko 515/2009 Dekretuak aldatu zuen, (hirugarren xedapen gehigarria).*

Dagoeneko diren nekazaritzako ustiategiei buruzko araudia ezartzea:

- Dagoeneko diren nekazaritzako ustiategiek jarduerarako lizentzia lortzekotan, 15 urteko epea dute irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan ezarritako baldintzetara egokitzeko; ez dituzte bete beharko distantzien eta kokapenen inguruko arauak, dekretu horrek ezarri bezala.

IV.- Kultura Ondarearen arloan:

Kultura ondarearen arloan, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak 2013ko urriaren 2an egindako txostenak jasotzen



determinaciones de carácter vinculante contenidas en el informe emitido el 2 de octubre de 2013 por la Dirección de Patrimonio Cultural:

1.1.- El artículo 7 del Catálogo del Documento debe eliminar el régimen de protección general que describe para las Zonas de Presunción Arqueológica, debiendo recoger sin embargo, que toda actuación a realizar deberá tener informe favorable del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Álava.

1.2.- El documento debe eliminar las actuaciones concretas previstas para cada elemento arqueológico objeto del catálogo, dejando tal definición para ser determinada, como en el caso anterior, por el Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Álava, a la vista de la información que sobre la intervención se presente.

1.3.- Se deben ajustar los plazos de paralización de obras para los hallazgos casuales a los señalados en el art. 47 de la Ley 7/1990, es decir, se podrán paralizar las obras por un plazo máximo de 15 días sin derecho a indemnización alguna.

1.4.- La plataforma giratoria del ferrocarril de Izarra, independientemente de que para su comprensión pueda y deba ser objeto de un estudio arqueológico debería integrarse en el *Catálogo de edificios, construcciones y elementos de interés del Título III: Patrimonio Arquitectónico*, manteniéndolo con el epígrafe de *Restos Industriales de Relevancia*, y no ser incluido en el Título II como *Patrimonio Arqueológico*, tal como en el documento figura.

VI. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes emitidos por el Ministerio de Fomento (Anexo I); por Dirección de Agricultura y Ganadería (Anexo II), por la Viceconsejería de Vivienda (Anexo III); por la Dirección de Patrimonio Cultural (Anexo IV); por URA-Agencia Vasca del Agua (Anexo V), que se acompañan a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta

dituen ondoko erabaki lotesle hauek hartuko dira kontuan:

1.1.- Dokumentuaren Katalogoaren 7. artikulua azterna arkeologikoak egon daitezkeen eremuetarako jasotzen duen babes-araubide orokorra ezabatu behar du. Aitzitik, egin behar den edozein jarduerak Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondare Zerbitzuko aldeko txostena izan behar duela jaso beharko du.

1.2.- Dokumentu horrek katalogoko elementu arkeologiko bakoitzerako aurreikusitako jarduera zehatzak ezabatu beharko ditu. Hori, aurreko kasuan bezala, Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondare Zerbitzuak ezarri beharko du aurkezten zaion esku-hartzearen informazioa ikusita.

1.3.- 7/1990 Legearen 47. artikulua aipatutako ezusteko aurkikuntzetarako obrak geldiarazteko epeak egokitu behar dira, hau da, gehienez 15 eguneko epean geldiarazi ahal izango dira obrak, inongo kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik gabe.

1.4.- Izarrako trenbidearen plataforma birakaria, hori behar bezala ulertzeko azterlan arkeologikoa egin behar den ala ez kontuan hartuko gabe, ez da II. Tituluan arkeologia-ondare gisa sartu behar, baizik eta *industriako hondakin nabarmena* idazpuruan mantendu behar da baina III. Tituluaren *Intereseko Eraikin, Eraikuntza eta Elementuen Katalogoan* sartuta.

VI. Expediente hau behin betiko onartzeko eskumena duen organoari ondokoek egindako txostenak bidaltzea: Sustapen Ministerioa (I. eranskina), Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (II. eranskina), Etxebizitza Sailburuordetza (III. eranskina), Kultura Ondarearen Zuzendaritza (IV. eranskina) eta URA-Uraren Euskal Agentzia (V. eranskina) eta. Ziurtagiri horiek erantsita doaz.”

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi



EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEA
COMISION DE ORDENACION DEL TERRITORIO DEL PAIS VASCO

correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 9 de octubre de 2013.

baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 9an.



IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Izp./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga